

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Sagardoaren
lurraldea
El territorio
de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

XIII. SAGAR UZTA ASTIGARRAGAN



Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, irailaren 26, 27 eta 29an **XIII. Sagar Uzta ospatuko da Astigarragan**. Sagar Uzta, sagarraren festa da eta tolaretako lanen hasiera ospatzen du sagarraren eta sagardoaren kultura oinarrituriko jarduerekin.

Irailaren 26an, osteguna, **sagarraren eratorriekin egindako pintxo-pote berezia ospatuko da Astigarragako tabernetan**.

Irailaren 27an, ostirala, **Euskal Herriko sagarren eta muztioaren kata gidatua** izango da Astigarragako Roxario jatetxean.

Baina jarduera nagusiak irailaren 29an ospatuko dira, igandean. Herriko plazan **bertako sagar erakusketa eta salmenta, sagardoa egiteko prozesu osoa eta lehen muztioaren elaborazioa eta dastaketa** izango dira.

Honetaz gain, ikusteko gauza ugari izango da: sagar dantza, kirikoketa, txalaparta, artisau produktuen salmenta, sagardo dastaketa eta salmenta, erakusketak, herri kirolak, herri bazkaria, argazki rally digitala, sagar tarta lehiaketa, gazta dastaketa hurrekin, etb...

Aukera erakargarri asko, **Sagardoetxea Museoko** bisitaldiarekin osatu litezkeenak.

Informazio gehiagorako:

Sagardoaren Lurraldea

Tel: +34 943 550 575

e-mail: info@sagardoarenlurraldea.com